

IKAS EKINEZKO ERREGIMENEN Lanbide Heziketa DUAL PLANA

- DUAL plana Lanbide Heziketako zikloa ikasten ari diren ikasleentzat prestatutako plana da.
- DUAL planean, ikasleak **ikastetxe eta enpresan** (ikastetxeetan, Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan) burutuko du bere jarduera. Enpresako jarduera egiteaz gain **zikloko modulu teorikoak burutu beharra** daukate beraz, klaseetara joan beharra daukate.
- Jarduera enpresan denean bakarrik, asteen **40 ordu baino gehiago ezin dute egin**
- Tutoreak izendatu behar dira, bai ikastetxean zein enpresan.
- DUAL planean ikasleek **kontratu bat** izan behar dute.
- Parte hartu ahal izateko, ikasleak zikloko **1. mailako modulu guztiak gaindituta** izan behar ditu.
- Praktika aldia 2. mailan martxan jartzen da.
- Enpresako orduak, bertako **hitzarmenaren %75 baino gutxiago izan behar dira.**
- **Ikasleen aukeratzean kontutan izango dira** (lehentasunaren arabera):
 - Nota (eskola errendimendua)
 - Klaseetara bertaratzea
 - Talde lanerako kompetentzia
 - Erabakiak hartzeko gaitasuna
 - Berritze eta sortzeko gaitasuna
- **Ikastetxeko zuzendariari dagokio ikaslea aukeratzea.** Aukeratze prozesuan ikastetxeko eta enpresako ordezkariak parte hartu dezakete.
- **Aukeratutako ikasleak idatzi bat sinatuta** aurkeztuko du, non ondorengo puntuak jasoko dituen:
 - Planaren zehaztasunei buruzko informazioa eman zaiola.
 - Eguneroko jarduera, egutegia eta ordutegiak betako dituela.
 - Enpresa eta ikastetxearen arautegiak zorrotasunez beteko dituela.
- **Administrazioak istripu eta erantzukizun zibiletik** babesteko **seguru poliza bat** egingo dio ikasleari. Poliza honek ikaslea enpresan dagoen tarte babestuko du. Gainontzeko momentuak Gizarte Segurantzaren eta eskola seguruaren menpe egongo da
- Ikasleak ordainduta egon behar dira, enpresaren hitzarmenaren arabera edo bestela **gutxienez hileroko SMIren %60**, hau baino gutxiago ezin da izan.

EGUTEGIA eta ORDUTEGIAK simulazioa

- **Ikastolen hitzarmena** kontutan izan ezker, 0-3 zikloko hezitzailearen ikasturteko jarduera **1585 ordukoa** da
- HEZIBI/ DUALeko ikasleak, hitzarmenak dion ordu kopuruaren %75 a baino gutxiago egin beharko luke. **Demagun %74** egingo dutela, beraz **1173 ordu**
- Ondorengo banaketa posiblearekin:

JARDUERA OSOKO banaketa (7 ordu)			
	Data	Egun kopurua	orduak
2020ko ekaina- urria	<ul style="list-style-type: none"> ● 2020/06/15tik 2020/10/06ra (***) 	54 egun	378
2021/04/09tik	<ul style="list-style-type: none"> ● 2021/04/09tik ● 2021 ekainaren 15era (***) 	48 egun	336
GUZTIRA		102 egun	714 ordu

JARDUERA MURRIZTUAREN banaketa (4 ordu)			
	Data	Egun kopurua	orduak
2020ko Urria	9tik hasita, kontutan izanik 12a jai dela eta agian 13a zubi	15 egun	60
Azaroa	Azaroak 1 jai egin da	21 egun	84
Abendua	6,7,8 eta 25a jai egin da	17 egun	68
2021ko Urtarrila	Lehen astea opor eginda, beraz 8an hasita	18 egun	72
Otsaila	Osorik	20 egun	80
Martxoa	28ra arte (29tik Aste Santua)	20 egun	80
Apirila	3,4,5, eta 6a	4 egun	16
GUZTIRA		115 egun	460 ordu

(***) Tarte honetan zikloko beste ikasleak praktikak egiten dituzte. Hauek 360 ordu egingo dituzte (2020/09/11tik 2020/10/06ra eta 2021/04/12tik 2021/06/01era)

Simulazioan guztira 1.174 ordu

-